

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

163/2016 Foru Agindua, ekainaren 29koa, behin betiko onartzen duena zenbait baldintzarekin Erriberabeitiko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedientea, ARASUR plataforma logistikoaren esparruan burdinbide irispidearen inguruan

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. 2016ko martxoaren 4an, hasierako onarpena eman zitzaion Erriberabeitiko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedienteari, Arasur plataforma logistikoaren esparruan burdinbide irispideari dagokionez; halaber, erabaki zen jendaurrean jartzea eta halaxe egin zen kasuan kasuko iragarkiak jarrita 2016ko martxoaren 21eko ALHAOn (33. zk.) eta 2016ko martxoaren 19ko "El Correo" egunkarian, udaletxeko iragarki taulan eta administrazio batzarrei jakinarazita.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, Udalak, 2016ko maiatzaren 12ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren 26/2016 Foru Aginduz, 2016ko otsailaren 19ko ALHAOn (20. zk.) argitaratuta, aldeko irizpena eman zitzaion ingurumen txosten estrategikoari, zenbait baldintzapean, ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Bilboko Portu Agintaritzak sustatutako espediente honen xede da aldatzea Arasur eremuko antolamendu xehatua, ahalbidetzeko burdinbide irispide berria egitea, beharrezko baita salgaien baztergune bat ezartzea trenbide loturaz poligonora iristeko, eta konfiguratzea bideen zabalgunea egokituta Bilboko Portuak diharduen zama eta bolumenei. Plataforma logistiko haren trenbide operatibitatea garatzeko inbertsio eragiketa baten barruan sartzeko jardura hau; izan ere, oraintsu hitzarmena izenpetu dute Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Bilboko Portu Agintaritzak.

Txosten honen gai den aldaketak eragiten dion eremua sektoreko ekialdean dago kokatuta, zeharka gurutzatzen duen trenbidea eta plataforma logistikoaren iparraldeko eremua eta hegoaldeko eremua batzen dituen bide publikoaren bidezubia lotzen diren lekuan. Proposamena da aldatzea antolamendu xehatua, hauetan:

– Kalifikazio bikoitza jartzen da bidezubiko bide tarte batean, egun duen bide publikoaren kalifikazioa gordez eta ahalbidetuta bertako proiektioan erabilera logistikoa eta industrial, azaldutako bide azpian luzatuz aurreikusten den trenbide azpiegitura.

– Halaber, trenbide azpiegitura hura luzatu ahal izateko, zentro logistiko eta industrial den lurzati bat handitzen da, bere eraikigarritasuna gordez eta proportzio berean gutxituz tokiko berdegune bat.

Bigarrena. Egun, "Arasur plataforma logistikoaren plan partzialak" arautzen du eremua eta ondoren egin zaizkion lau aldaketak, denak behin betiko onartuta daudenak. Plan partzial haren eremua badago lurzaticatuta eta hiritua; hori dela eta, egin beharreko aldaketak egiteko, idatzi da indarreko planeamenduaren arau subsidiarioen antolamendu xehatuaren aldaketa bat.

Hirugarrena. Agiri teknikoak justifikatzen du komeni dela aldaketa hori egitea burdinbide irispide berria egiteko beharra baitago jarri nahi diren salgaien baztergunerako eta bide zabalgunerako, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Bilboko Portu Agintaritzak sustatutako plataforma logistikoaren trenbide operatibitatean inbertsio eragiketaren esparruan. Azken batean, plataforma logistikoaren operatibitatea eta lehiakortasuna hobetu nahi dira.

Laugarrena. Agiri teknikoa aztertu ondoren, uste da behar bezala justifikatu direla egin nahi den aldaketaren komenentzia eta egokitasuna.

Hala ere, badira agiri teknikoan zuzendu behar diren zenbait alde. Hauexek dira:

1. Planoei dagokionez, aldaketak eragiten dien plano guztiak jaso behar dira. Zehazki, ikusi da falta dela "Bide sare, lerrokadura eta sestrak" planoak. Horiek guzti horiek, bai indarreko antolamendukoek bai proposamenekoek, osorik eta jatorrizkoen eskala berean egon behar dute, aldaketaren eremua marraztuta bertan.

2. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta osatuta, *.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, *.dwg luzapeneko fitxategietan aurkeztuko dira -*.ctb (arkatzak) edo *.shape fitxategiak ere bai haiekin- eta testua *.doc edo *.docx. luzapeneko fitxategian.

Bosgarrena. Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak 2016ko otsailaren 5ean emandako ingurumen txosten estrategikoak zenbait baldintza jarri ditu ingurumen babes eta kautela neurri gisa. Ondorioz, ingurumen txosten estrategikoak neurri osagarri hauek jaso beharko ditu:

A) Aldaketari dagokion eremuetako edozeinetan proposatutako jardunak gauzatzeko lurra atera behar bada, landare lurrari dagozkion horizonteak era selektiboan aterako dira, eta, onena, berehala birbanatzea edo, ezinezkoa balitz, metatzea litzateke. Lur metak gehienez bi metro eta erdi izango ditu altueran, eta ebakidura trapezoidaleko masatan pilatuko da. Landare lurra, lehentasunez, 13. berdeguneko gainazaletako landaretza eta lurzorua lehengoratzeko lanetarako erabiliko da.

B) Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitartzeko ontzi itxiak, biltegi iragazgaitzak edo beste aldizkako sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoï hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimendutara eraman beharko dira. Bide zoruak kentzean aterako diren eraikuntza eta eraipen hondakinak 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira (ekainaren 26koa, eraikuntza eta eraipen hondakinaren ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena).

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Erriberabeitiko udalerriko planeamenduko arau subsidarioak aldatzeko espedienteak, Arasur plataforma logistikoaren esparruan burdinbide irispidearen inguruan, baldin eta aldaketa hauek sartzen badira bertan:

1. Hirigintza agirian sartzea aldaketak eragiten dien plano guztiak. Zehazki, ikusi da falta dela "Bide sare, lerrokadura eta sestrak" planoak. Horiek guzti horiek, bai indarreko antolamendukoek bai proposamenekoek, osorik eta jatorrizkoen eskala berean egon behar dute, aldaketaren eremua marraztuta guztietan.

2. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, agiri guztiak, txosten honetan adierazitako baldintzen arabera zuzendurik eta osatuta, *.pdf luzapeneko fitxategietan eta artxibo editagarrietan aurkeztuko dira; planoak, bereziki, *.dwg luzapeneko fitxategietan aurkeztuko

dira -*.ctb (arkatzak) edo *.shape fitxategiak ere bai haiekin– eta testua *.doc edo *.docx. luzapeneko fitxategian.

3. Ingurumen agiri estrategikoa osatu beharko da ingurumen txosten estrategikoan ezarritako neurri osagarriekin, foru agindu honen bosgarren oinarrian zehaztuak.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espediente foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO